

Herri Aldizkaria

# otomotz

2006ko ekaina 118. alea



## Urretxu-Zumarragako batzokiaren 25. urteurrena

KOLABORAZIOA: JOXE MANUEL BEREZIARTUA - ARANTXA IRAETA

ELKARRIZKETA: CLARA LETE

IZERDI PATSETAN: AITOR ALBERDI, TRIATLOI TXAPELDUNA



# UGGASA

Urola Garaiko Garapenerako Agentzia

Ezkio-Itsaso • Legazpi • Urretxu • Zumarraga



- Enpresa Ekimen Berriei Babesa
- Eskualdeko Enpresa Txiki eta Ertainei Laguntza Informazioa - Bitartekotza
- Merkataritzari Laguntza Teknikoa
- Langabetuentzako Enplegu Zerbitzuak
- Prestakuntzarako Informazioa
- Eskualde Mailako beste Proiektu batzuk



legazpi@uggasa.com • urretxu@uggasa.com • zumarraga@uggasa.com  
943 73 71 83 (Legazpi) • 943 72 61 64 (Urretxu) • 943 72 58 29 (Zumarraga)



# ARGAZKI ZAHARRA



Goierri futbol taldeko jokalariei 1930ean ateratako argazkia.

Ezkerretik eskubira: Angel Gorospe, Jose Lizarralde, Valentin Araiztegi, Jose Alvarez, Regino Zabaleta, Jose Aranburu, ..., Luis Garcia, Pol Orthus, Lazaro Aierbe eta Fidel Okariz.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

**Argitaratzailea:** Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkarte, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel: 943 03 64 74 / 605 71 87 73

**Koordinatzailea:** Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarrjeta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Maider Hernando, Jonmikel Insausti, Itziar Ormaetxea, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta, Marian Toledo, Asier Zaldua.


**Diseinua:** Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Inprimategia:** GOI DESIGN - Zumarraga

**Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 2.000 ale.

**Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.




# KLIK ETA KLIK



2006ko ekaina



# KLIK ETA KLIK



Ale honetako argazkiak Idoia Narbaizak atera ditu.

2006ko ekaina



## Batzokia, hamaika ge

Urretxu-Zumarragako EAJk batzokiaren 25. urteurrena ospatu du ekainean. Hilaren 9an Josu Jon Imaz alderdiko lehendakariak mitina eskaini zuen eta, ondoren, afaria izan zen. Hilaren 10ean, argazki erakusketa ireki zen alderdiaren egoitzako ganbaran eta, azkenik, biharamunean, hildako

alderdikideen aldeko meza eta hamaiketakoa izan ziren. 25 urte bete dituen batzokiari buruz hitz egiteko, bi alderdikide beteranorekin izan gara: Jesus Iturberekin eta Vicente Quevedorekin. Bide batez, gainontzeko alderdietako kideekin ere izan gara, euren egoitzez solasean.



EAJren hautagaiak udal hauteskundeetara, Zumarragan.



Xabier Arzallus, batzokiaren inaugurazio egunean.

Egungo batzokiaren inaugurazioa duela 25 urte izan bazen ere, 1981eko ekainaren 14an zehazki, Urretxu-Zumarragako EAJ askoz ere lehenago sortu zen. 100 urte inguru izango dira ordutik. "Hemendik bi urtera, 2008an, mendeurrena ospatuko dugu. Ez dakigu zehazki bi herriotako EAJ noiz sortu zen, baina 1908ko azaroan GBBren sorrera batzarra izan zen Antion. Horrek, alderdia ordurako herrian zela esan nahi du. Sabin Etxean Zumarragan izan zen bilera garrantzitsu hari buruz prentsak argitaratutako guztia aurki daiteke".

Zumarragak pisu handia du, beraz, EAJren historian. "Gipuzkoa mailako lehen ekitaldi ofiziala bertan izan zen", azpimarratu du Iturbek. Zoritxarrez, ez dute alderdiak herrian eman zituen lehen pausoei buruzko informazio gehiago. "Zenbait gauza esan dizkigute, baina gerra aurreko garaiari buruzkoak dira.

Dagoeneko, ez da militante historikorik gelditzen. Aspaldiko erreferentzia bakarra Javier Garinen aita da: joan zen mendeko 20ko hamarkadaren hasieran, herrian alderdi burua izan zela dakigu, bere semeak hala esan digulako", dio Quevedok.

Garai batean batzokian izango zen dokumentazioa frankistek hartuko zutela edota partikularren etxeetan egongo dela uste dute. "Jose Angel Igarzabalekin hitz egin dugu. Urretxu-Zumarragako EAJren historiari buruz egon daitekeen informazioa bilatzea nahi dugu eta berak, 2008ko mendeurrenara begira, sakoneko lana egiteko prest dagoela esan digu. Horretarako, artxibo ugari bisitatu beharko ditu datozen urteetan".

Izan ere, informazio historiko gutxi dago. "Badakigu alderdiak beste egoitza batzuk izan zituela honen aurretik.

Horietako bat Legazpi kaleko 3ko bigarren solairuan izan zen eta beste bat Urretxuko Iparragirre kalean, egun Mendizabal harategia dagoen tokian".

Garai bateko batzokien jabetzari buruzko inongo agiririk ez zutenez, frankismo ostean, egoitza berri baten bila hasi ziren. "Alderdia konfiskatu zizkioten jabetzei buruzko informazioa biltzen hasi zenean, zer edo zer bidali genuen, baina ez zen balio handikoa. Hori dela eta, 1977 inguruan, beste egoitza baten bila hasi ginen. 1979an jarri ginen harremanetan eraikin honen jabeekin. 1980ko abenduren 24an sartu ginen lehenengoz erosi ostean eta ekainean, zaharberritze obra bukatu zenean, inaugurazio ekitaldia izan zen".

Jeltzaleak oso harro daude euren egoitzaz. "Zorte handia izan genuen. Etxea Donostian bizi zen Uzkinga familiarena



## taeren lekuko

zen. Oporretan erabiltzen zuten, baina ordu-rako etortzeari utziak ziren. Etxea zaintzeko pertsona bat zuten, egun tarteko oinean bizi denaren ama. Etxeberriko Jose Manuel Zubizarreta izan zen etxe hau baldintza one-tan erosteko aukera zegoela esan ziguna. Uzgangatarrekin hitz egitera joan, eta bi solairuak, ganbara eta lorategia erosi genituen 15 milioitan. Jarri ziguten baldintzeta-ko bat, lorategiari euren amaren izena ipin-tzea zen: Clara Larrañaga. Egun, oraindik paperak egin ez ditugun arren, lorategia Udalari utzita dago".

Afiliatuek ez zuten inongo zalantzarik izan: nekez aurkituko zuten hura baino egoitza egokiagorik. "Herri erdian, Urretxu eta Zumarraga artean, ia erreka gainean, dagoen lokala topatzea oso pozgarria izan zen. Ez zen inongo eztabaidarik izan. Urretxuko lokalen bati buruz hitz eginak ginen, baina hau azaldu zenean, ez genuen

**"Oraindik paperak egin ez ditugun arren, lorategia Udalari utzita dago"**

inongo zalantzarik izan: hain zen aproposa eta horren prezio onean... Afiliatuek dirulaguntza eman zuten, baina mailegua ere eskatu behar izan genuen".

Mailegu honekin, lokala erosteaz gain, zaharberritze lanak egin zituzten. "Arkitekto bati estudioa agindu genion. Lanaren zati handi bat alderdi kideok egin genuen: pareta batzuk bota, zaborra atera, garbiketa lanak... Hori guztia auzolanean egin genuen. Hilabete batean galtza bete lan izan genuen. Ondoren, Mendiolak txukun-keta lanak egin zituen".

Lan bikaina egin zuten, orduetik apenas egin behar izan baita besterik eta batzokiak garai bateko itxura berbera baitu.

"Duela urte batzuk, paretetako harriak bista-  
ra atera genituen. Bestelakoan, mantentze-  
lanak besterik ez ditugu egin. Etxea bikaina  
da eta zoragarri gelditu zen. Alde horretatik,  
oso pozik gaude. Lehen solairuan taberna  
dugu, bigarrenean bulegoak eta bilera gela  
ditugu eta ganbara, azkenaldian, dantza  
ikastaroak emateko erabiltzen da".

Iturbek eta Quevedok batzokiaren  
inaugurazio ekitaldietako detailerik txikiena  
ere gogoratzen dute. Iturbe Urretxu-  
Zumarragan alderdiaren burua zen, gainera,  
garai hartan. "Ostiralean, ekainaren 12a zen,  
Gudariei omenaldia eskaini zitzaizen Zelai-  
Aritzin. Ekitaldi nagusiak igandean izan  
ziren, ekainaren 14an. Mitina, batzokiko  
balkoitik eskaini zen. Ni agurraz arduratu  
nintzen eta, ondoren, Josu Jon Imazek eta  
Xabier Arzallusek hitz egin zuten: lehenak  
EGIren (alderdiko gazteen) izenean eta  
bigarrenak EBBko buru bezala. Egun zora-  
garria egin zuen, bero handiegia aukeran,  
eta plaza jendez gainezka izan zen. Bazuen  
meritua bero harekin bertan egoteak!".

Mitinaren ostean, Ederrena pilota-  
leku zaharrera joan ziren bazkaltzera. "500  
lagun izan ginen eta menua Etxeberri jate-  
txekok zerbitzatu zuten. Arzallus ez zen  
bazkaltzen gelditu eta Jesus Mari Leizaola  
lehendakari ohia izan zen mahaiburua.  
Garaikoetxea lehendakaria ere gonbidatu  
genuen, baina ez zen etorri: bi buru ziren eta  
bat etortzen bazen... Dena den, batzoki  
baten inaugurazioa EBBren presidenteari  
dagokio. Baita orain ere. Garaikoetxea  
aurrera etorri zen", oroitzen du Iturbek.

Quevedok, Etxeberrikoek zerbitza-  
tu zuten menua ere gogoratzen du. "Plater  
nagusia Oportoarekin erretako urdaiazpikoa  
izan zen, garai hartan moda-modan zegoen.  
Bestalde, egun hartan bertan estreinatu  
genuen batzokiko urrezko liburua eta bertan  
idazten lehena Xabier Arzallus izan zen.  
Azkena, Josu Jon Imaz izan da".

Hasieran, alderdiko afiliatuak  
eurak arduratzen ziren batzokiko martxaz.  
"Lantaldeak egiten genituen, koadrilaka, eta

Herritar eta Enpresaren Elkartea  
**HERCE**  
Enpresaren M. E.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak  
Enpresa mantenua  
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50  
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66  
Mugikorra: 656 703 392

20700 URRETXU

**TABERNA**

*Peñarrieta*  
**JATETXEA**

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19  
ZUMARRAGA

*belar zain*

Belardenda, dieta eta errejimen elikadura  
Mediku-homeopata kontsulta  
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80

**Denda alokatu edo  
saltzen da Antzuolan**  
Martxan dagoen  
argazkidenda-bitxitegia

**943 78 70 66**  
**635 757 271**

**BIONA**

**AROTEGIA**

**Altzariak neurria**

☎ eta faxa: **72 02 55**  
Erratzu, z/g URRETXU



# HILABETE HONETAKO GAIA

Mus txapelketak arrakasta handia du urtero.



Haurrak mozarrotuta, 80ko hamarkadan egindako festa batean.



hauek hartzen zuten euren kargu taberna eta jantokia. 15 bat talde zeuden eta aste-oro batek lan egiten zuen. Aurreztu beharra zegoen! Gainera, hala, partaidetza bultzatzea eta egoitza girotzea lortu genuen".

Lehen urte haietan, Iturbek eta Quevedok oroitzen duten moduan, mugimendu handia izan zen. "Hitzaldiak eta marrazki eta euskara ikastaroak antolatzen ziren, bestak beste. Udalak oraindik ez zuen arte ederren eskola ireki, Euskaltegirik ere ez zen egongo beharba-da... Orain, ez luke zentzurik izango guk ikastaroak emateak".

Urte haietan, EGI ere indartsu ageri zen bi herriotan. "Gogor lan egin zuten: mendi irteerak eta kultur asteak antolatzen zituzten, beste batzoki batzue-tako gazteak ekartzen zituzten... ganbaran gauen bat edo beste pasatu zutela ere oroitzen dut", dio Iturbek. "Alderdian eman zen hausturak eragin handia izan zuen gazteengan. EGI, 30 laguneko gazte taldea izatetik, desagertzera pasatu zen Urretxu-Zumarragan".

Haustura edo banaketa oso gogorra izan zen, bai batzuentzat eta bai besteentzat. Batzokia denbora luzez itxita egon zela ikustea besterik ez dago. "Azken ordura arte ez zen arazorik egon hemen, hilabete pare batean gertatu zen guztia. Egoitza ixtea erabaki genuen,

baina alderdi kide gehienak EAra pasa ziren eta lokalarekin gelditzea euren zego-kiela pentsatu zuten. Tentsio une bat primeran oroitzen dugu: epaile baten laguntzaz, batzokia gureganatzera joan behar ginela zabaldu zen eta EAko batzuek gau guztia bertan eman zuten hori eragozteko asmoz".

Azkenean, ez zen epaileen esku hartzearen beharrik izan: bi alderdietako buruzagitzek Urretxu-Zumarragako batzokia jeltzaleen esku uztea adostu zuten. "Epaiketen bideak luze joko zuen eta alderdiek akordiotara heltzea erabaki zuten. Dena den, hemengo kasuan, Uzkangatarrek beti defendatu zuten eurek EAJri saldu ziotela etxea. Hori dela eta, alderdien arteko adostasunik egon ez balitz ere, egoitzak gure esku bukatuko zuela uste dugu".

Hala ere, EAJk denbora luzea eman zuen batzokitik kanpo. "1987tik 1991ra bitartean itxita egon zen. EAK hilabete inguru soilik izan zuen zabalik. Urte haietan toki ezberdinetan egon ginen, orain Kutxa Enpresak dagoen loka-lean adibidez".

Azken urte hauek, 80ko hamarkada-koak baino lasaiagoak izan dira. "Gazteak etortzen dira, beste batzuk joan egiten zaizkigu... bizitzaren legea. Eutsi egiten diogu, alderdiak antzeko egoera

bizi du Gipuzkoako gainontzeko herrietan eta beste alderdiak ere paretu daude. Zorionez, taldetxo bat gazteei laguntzeko prest agertu da: izan ere, jendea prestatu behar dugu, alderdiaren bitartez herriaren alde lan egin dezaten".

Hala, Urretxu-Zumarragako batzokitik alderdi barruan zein Euskal Herria mailan zeresana eman duten kide-ak atera dira. "Pako Pozueta senataria izan zen bi legegintzalditan, Sofia Bereziartu GBBko idazkaria da...". Guztien buru, Josu Jon Imaz, noski. "Hiriburukoei herriotan ere ondo lan egiten dugula erakusteko balio izan digu. Gainera, alderdi barruan ospe apur bat eman digula aitortu beharra dago".

Batzokian bertan herritarrentzat dagoen eskaintzari dagokionez esan, garai batean baino kultur ekitaldi gutxiago antolatzen direla eta taberna eta jantokia profesional baten esku utzi direla. "Politika arloko lanetik kanpo, ekitaldi gutxi dago. Ganbara dantza ikastaro bateko kideei utzi diegu, mus txapelketa antolatzen dugu eta hitzaldi batzuk ere bai. Tabernaren arduradunarekin zorte handia izan dugu. Hala, ostiraletan giro aparta izaten da eta larunbatetan jendez gainezka. Zentzu horretan, Urretxu-Zumarragako da Gipuzkoan hobekien funtzionatzen duen batzokietako bat", diote Iturbek eta Quevedok harro.



# HILABETE HONETAKO GAIA

## Aldiri: "Bezeria bera ere aprobetxatu genuen, baina txokolaterik ez zela izango argi utzita!"

Urtero, herriko bertsolari txapelketako kanporaketa jokatzeko da Aldiri. Argazkia: Josu Pérez.



Ezker abertzaleak bi egoitza ditu: Amalur Zumarragan eta Aldiri Urretxun. Herri Batasuna sortu eta ondorengo lehen urteetan bi herrietarako batzorde bakarra izan zen, baina, herri bakoitzak berea izatea hobe zela ikusi zuten gero. Audientzia Nacionalean hartutako erabakiak direla eta, Zumarragakoek nahiago izan dute euren egoitzaren nondik norakoei buruz ez hitz egin. Urretxun, berriz, Daniel Arrizabalaga, Miren Josune Begiristain, Joxemi Lasa eta Joxe Leunda beteranoe-kin izan gara.

Herri bakoitzak bere batzordea behar zuela erabaki eta gutxira, urretxuarrak egoitza baten bila hasi ziren. "Jose Mari Etxaniz *Potros* hil zutenerako, 1985eko irailerako, batzordea zegoen Urretxun. Elkarte gastronomikoetan, kiroldegiko tabernan... elkartzen ginen, baina, berehala, egoitza behar genuela ikusi genuen. Bestela, ez zegoen lana fun- damentuz aurrera ateratzerik".

1986an hartu zuten egun Aldiri dena. "Lokal hau oso egokia iruditu zitzaigun. Transferentzian zegoelako hartu genuen, batik bat. Lokala Juanito Arbizurena da eta hemen txokolategia zegoen. Ez genuen inbertsio handirik egin behar izan, gehiena garai hartan zegoen

bezala dago: mostradorea, sabaia, leihoak... ordukoak dira. Sukaldea besterik ez dugu aldatu. Txokolategiko bezeria bera ere aprobetxatu genuen, baina txokolaterik ez zela izango argi utzi genuen!", diote txantxetan.

Aldiri 1986ko Ostiral Santu egunean ireki zen. "Jende asko etorri zen. Txorixo pintxoak jarri genituen eta batzuek *ya están los de siempre, no respetan ni la Semana Santa* esan zutela gogorazten dugu".

Urretxuarrak Amalurretik zetozen: hark elkarte gisa funtzionatzen du eta Aldiri, berriz, taberna da. "Behin baino gehiagotan esan genuen elkarte izateak eragozpenak zituela. Azken finean, han bakoitza bere giltzarekin ibili behar zen. Hona kanpoko jendea edozein ekintzataratara etor daiteke. Eredu hau egokiagoa da herritarrekin harremana izateko. Gainera, taberna alderdia eta ekimenak garatzeko diru iturria da".

Urretxuko ezker abertzaleak beste lokal batera joateko asmoa zuen, Garzonek herri tabernen kontuak bahitu aurretik. "Gure asmoak zutik dirau, hemengo lana dela eta, beste lokal moeta bat behar baitugu: bai tabernako bezeroei

begira eta bai alderdiko jardunari begira". Duela urte batzuk, tokiz aldatzeko prest zeuden. "Lanerako txoko bat genuen eta, hura bota zenean, Eusko Jaurlaritzarekin akordioa lortu genuen eraikin berriko beheko solairua hartzeko. Prezioa ere adostu genuen, baina, etxea egiten ari ziren bitartean, Garzon etorri zen eta hortxe moztu zen dena. Ea behingoz afera konpontzen den! Prozesu honek aurrera egitea eta gure eskubideak eskuratzea espero dugu".

Joxe Leundak Aldiri tabernako sukaldean lan egiten dutenen meritua aitortu du. "Baldintzak eskasak dira. Hor lana egitea oso gogorra da. Beroarekin eta, hor sartu egin behar da! Aurrera begira, beste zer edo zer ezinbestekoa da".

Dena den, Aldiriko martxarekin gustura dira. "Erakusleioa izateak, jendeak berri bila nora jo izatea suposatzen du: istripu bat egon da, ez dakit zein atxilotu dute...". Garai batean, kultur ekitaldi ugari ere antolatzen zituzten. "Aldiri kultur elkarteak Garzonek kontuak eta lokalak bahitu arte antolatzen zituenak, Lekaiok antolatu behar izan ditu gero: Urretxuko jaietakoak, mikologia asteburuak, erraldoien konpartsa, Herri Urratsera autobusak...".



## Zelaikoa Alkartetxea: "Kolore guztietako jendea etortzen da, inolako konplexurik gabe"

Carlos Garaikoetxea alderdiko presidentea izan zen inaugurazio ekitaldian.



Eusko Alkartasuna alderdia 1987an sortu bazen ere, zortzi urte pasatu ziren egun duen egoitza ireki aurretik. Ordura arte, afiliatu batek Piedad kalean zuen lokal txiki batean burutu zuten euren jarduera politikoa. Zuzendaritzako kideek diotenez, "Ez zen lokal egokia. Bilerak, administrazio lanak... egiteko balio zuen, baina ez asanblada bat egiteko. Modu txarrean ibili ginen".

Halako batean, egungo lokala eskuratzeko aukera paratu zen. "Garbi genuen, herri batean izan edo bestean izan, bi herrietarako leku eroso behar zuela. Toki askotan izan ginen, baina batzuetan garestiak zirelako bestetan... Hau suertatu zenean, aukera ona iruditu zitzaigun: Zumarragan dago, baina Urretxuri begira. Bestalde, etxe azpian dago, garai hartan aparkatzeko toki aproposa zen, zubia bertan dago... Orduan, ez zen uste erreka bi herrien arteko lotura izan zitekeenik eta inguru hauek atzealdea ziren. Egund, bidegorria, Madayako etxeak... erabat aldatuta dago inguru hau".

Mailegua eskatu zuten, lokala eta egokitze lanak ordaintzeko. "Afiliazioetako dirua eta kreditua izan ziren iturriak. Ahalegin handia egin dugu, duela gutxi bukatu baitugu ordaintzen".

Inaugurazio ekitaldia 1995eko maiatzaren leian izan zen. "Carlos Garaikoetxea izan zen, garai hartan alderdiko lehendakaria. Mankomunitateko lau herriotako alkateak ere izan ziren: Idiakoz, Irizar, Arbizu eta Larrañaga. Bestalde, omenaldia eskaini zitzaion bi herriotako afiliatu zaharrenei. Horretaz gain, bazkari handi bat egin zen. Urtero, gutxi gorabehera data berean, urteurren ekitaldia egiten dugu: hitzaldiren bat izaten da. Dagoeneko, EAko buru gehienak izan dira Zumarragan: Begoña Errazti, Iñaki Galdos... Imanol Muruari buruzko liburuaren aurkezpena ere egin zen".

Bestelakoan, ez dituzte ekitaldi asko antolatzen. Garai batean, bi herriotako hainbat lagun omendu zituzten. "Ez genuen uste alderdi politiko batek antolatu beharreko kontua zenik, baina Udalek egiten ez zuten, hiru edo lau urtetan guk egitea erabaki genuen. Urtero, Urretxuko bat eta Zumarragako beste bat omentzen genituen: lehenari hurrizta egurrez egindako makila ematen genion eta bigarrenari zumar egurrez egindakoa. Zumarragako Trikitixakoek, Ramon Yurrebasok, Anjel Arrospidek, Jesus Seguroiak, Inazio Barriok... jaso zuten, besteak beste. Egiteari utzi genion, baina inork ez zuen lekukoa hartu. Herri batzuetan egiten da

eta hemen ere egin beharko litzateke".

Eusko Alkartasunakoek euren egoitzako atea mundu guztiari zabalik daudela azpimarratu dute eta jendea horren jakitun omen da. "Alderdi batzuek sistema bat aukeratzen dute eta besteak beste bat. Afiliatu eta aldekoentzat elkarte gastronomiko moduko zerbait egin genezakeen edo lokal irekiagoa. Bigarrena egitea pentsatu genuen eta asmatu egin genuen. Beharbada, Urretxu-Zumarragan alkartetxea da egoitzarik irekiena. Kolore guztietako jendea etortzen da, inolako konplexurik gabe. Ondoan Galeperra izateak lagunduko zuen. Poteatzaile koadrila batzuen zirkuituan dago. Alde horretatik, zerbitzua egiten diogu herriari. Beste batzuk, euren izaeratik, kokapenagatik... arazo gehiago dituzte".

EAKoek, beste batzuek bezala, taberna eta jatetxea alokatuta dituzte. "Zorra ordaintzeko sistema ere izan da... Jatetxearen zati bat gure esku dago, lagunarteko afarietarako-eta. Behar dugunean, tabernako nagusiari garaiz abisatzen diogu. Tabernaz eta jatetxeaz gain, bulego txiki bat eta aldameneko garaje bat dugu biltegi gisa. Liburutegi txiki bat ere badugu, jendeak ekarritako liburuekin osatua. Tartean Marxen *El capital* ere badugu!".



## Casa del Pueblo: "Alderdi politiko batek ireki zuen lehen egoitza izan zen gurea"

Sozialistek tradizio handia dute Urretxu-Zumarragan. Francoren diktadura ostean, 1977an berrantolatu zuten alderdia herrian. Anton Arbulu Zumarragako alkateak primeran oroitzen du garai hura. "Bilerak Kabia jatetxea dagoen tokian egiten ziren, garai hartan Gure-Kabia zena. Nicolas Redondo, Enrique Mujika... etortzen ziren, hemengo Ismael Aldamarekin, Baltasarrekin... biltzera eta panfletoak ekartzera".

PSEren egoitza, Casa del Pueblo izenarekin ezagunagoa, urte hartan bertan ireki zen. "Alderdi politiko batek ireki zuen lehen egoitza izan zen. Gero, Batzokia, Amalur... ireki ziren".

Orduetik, sozialistak Bidezaren kalean elkartzen dira. "Leku oso onean dagoelako erosi zen lokal hori. Auzolanean konpondu genuen, UGTko eta PSEko afiliatuek. Izan ere, alderdiarentzat eta sindikatuarentzat erosi genuen. Orain, berriz, UGT Leku-Ona zapata denda gainean dago. Nire ustez, sindikatua eta alderdia eta ez dira elkarrekin egon behar. Izan ere, bakoitzak bere lana du eta guztiak ez daude bietan afiliatuak".



PSE-EEkoen egoitza oso handia da. "Taberna, bilera gela handia, liburategia, bulegoak... egin genituen. Oso lan ona egin genuen. Taberna denei zabalik zegoen eta bulego batzuk guretzat eta besteak sindikatukoentzat ziren".

UGT tokiz aldatu ondoren, PSE-EEK egoitza berritzeari ekin dio. Hala, taberna zerbitzua kendu eta alokatu egin du. "Lokal osoa gurea da oraindik, baina taberna alokatu egin dugu. Beste ate bat egin dugu gure egoitzara sartzeko eta barrualdean berrikuntzak egiten ari gara".

Izan ere, beste alderdi batzuetan bezala, afiliatu guztiak ez daude tabernan lan egiteko prest. "Lehen batzorde asko genituen: bata tabernaz arduratzen zen, bestea ekitaldi publikoetz... Gauzak ez dira lehen bezala, jendea nekatu egiten da. Hala, taberna alokatzea erabaki dugu".

Arbuluk ez du uste taberna ixtearekin alderdiak jendearekiko gertutasuna galdu duenik. "Tabernara ez eta egoitzara joan nahi duen jende asko dago. Egoitza afiliatuei eta edozein kontsulta egin nahi duten herritarrei zabalik dago".

## Ezker Batua, Paraiso galerian



Urola Garaiko Ezker Batua 1987an sortu zen. Sorrera bilerak eta sortu ondorengo lehenak Zelai-Arztin egin zituzten, baina berehala lortu zuten euren egoitza. Diego Calvo Zumarragako zinegotzia haurra zen oraindik garai hartan, baina ondo asko ezagutzen du alderdiaren historia.

Ezker Batuaren lehen egoitza Zelai-Arztin aretoaren ondoko fruta biltegitik gertu zegoen. "2001. urtera arte izan ginen bertan, alokairuan. Urte hartan egungo egoitzara etorri ginen: Secundino Esnaola kaleko Paraiso galeriara. Hemen ere alokairuan gaude".

Inaugurazio ekitaldian alderdiaren Gipuzkoako eta Euskal

Autonomi Erkidegoko buruak izan ziren: Antton Carrera eta Javier Madrazo. "Ez genuen ekitaldi bereziki deigarriarik antolatu", dio Calvok. "Lokala eskualde mailakoa da eta garai hartan arduraduna Jose Luis Insua legazpiarra zela oroitzen dut".

Egoitza txikia da, baina alderdiaren beharrak asetzeko nahikoa. "Lehen denda bat zegoela uste dut eta, orain, bilerak egiteko erabiltzen dugu batez ere. Bilera gela, trastelekua eta komuna besterik ez ditugu; baina gusturara gaude. Izan ere, ditugun beharrak kontuan hartuta, nahikoa da. Bertan, tamaina dela eta, ez dugu bestelako ekitaldirik antolatzen. Hitzaldiak, esaterako, Legazpi dorretxean egiten ditugu".





Joxe Manuel Bereziartua

## Urretxuko Lavapies auzoa

Lino Formoso bere lekurik gustukoenean dago eserita, aparkaleku ondoko burdinazko eserlekuetan. Bero dago, baina ondoko parketxoko urkiek gerizpe atsegina ematen diote. Hobe horrela, zeren beroarekin gaizki pasatzen baitu Linok. Tripa handia atera zaio urteen poderioz, eta mugimenduak ere baldartu. Orain majo bizi da, jan eta edan bapo, apur bat paseatu... jubilatuta ederki bizi da. Bere Ourensetik etorri zenean, ijitoen txakurra baino flakoago zegoen. Orain bai ondo, gantzak tripa bueltan pilatuta!

Bat-batean, tentetu egiten da Lino burdinazko bankuan. "Ostias!! Goiko Kaleko beltza duk!!". Linok Goiko Kalen bizi den Makoko Kokonde neska beltza ikusi du espaloian gora, bere ibilera ederrarekin. Neska altua da, kilkerren ipurdia baina beltzagoa, eta ahoa irekitzen duenean, bere hortzek sekulako dirdira egiten dute. Baina ez dira hortzak Makokori begiratzeko diona: "Horiek dituk aurrealdeak. Eta ipurdia mugitzeko modua... Espaloian ez zaiok kabitzen!!". Lino ez dago balentriarik egiteko, baina Makokok gazte sasoi gogorarazten dio, Marusiñari gaztainadian zeudela zirri egiten saiatzen zeneko garaiak, alegia.

Makokok atzo bisita izan zuen. Beste hiru beltz nagusi eta 5 haur egon ziren bere etxean, arroza haragiarekin jaten, mingaina eta ahoa erretzen duen horietako arroza. Gero, arratsalde osoan dantzan aritu ziren, leihoa irekita. Gero, Makokok bisitak lagundu zituen autobusera. Piruloko plazatik pasatu zirenean, sekulako ikuskizuna izan zen. Hori kontatu dio Zezilio napparak Linori, bere erdara aldrebesean. "Anduvieron nueve negras o asi... pero, negras, negras. Pero negras como cojones del grillo,

¡eh!". Linok txundituta begiratzeko dio. Zezilio gezurti samarra ote den errezeloa dauka. Batzuetan euskaraz hitz egiten entzuten du, eta ezin du sinetsi hori ulertuko duen kristaurik egongo denik. Zeziliok ere gauza bera esaten dio bere erdi gaztelera erdi galego horregatik.

Dena den, biak gelditzen dira aho zabalik Khaled eta Marwan ondotik pasatzen direnean. Auzoko bi Marokoar dira, erdaraz askorik ez dakitenak. ¿Tú ya le entiendes algo de que le hablan?", dio Zeziliok Dorraoko gaztelera elegante horretan, eta Linok "¡¡Que carallo voy entender, estos moros hablan como los de Lugo!!". Esan bezala, Zeziliok Makoko eta bere lagunaren nobedadeak eman dizkio Linori. Lino ametsetan bezala dago. Bere buruari galdetzen dio, "Beltza guztiak horrelakoak izango ote dira? Ourense ez zegok horrelakorik, redios!".


Bat batean, zarata batek bere ametsetatik atera arazi du. Ijitoak dira. Auto bat probatzen ari dira, batez ere azeleragailua probatzen, Zarata sekulakoa da. Dena den, zarata hori isiltzen denean Camela daukate jarrita kasetean, bada ez bada ere, isiltasuna ez baita osasuntsua. Linok nazkaz begiratzeko die. "Hauek beti zarata ateratzen, gainera, ze musika demonio da hori? Ai eta oi!!! eta lerelele. Muñeira bat askoz hobea da, carallo!".

Linok etxe alera joatea erabaki du. Makoko ez da berriz pasatuko, eta ijitoak zaratsuegiak dira bere gusturako. Bidean doala, Zeziliorekin topatu da. Khaled eta Marwanekin dago. "Boas tardes" dio Linok, eta besteek erantzuten diote: "Agur" eta "Salam". Urretxuko Lavapies dugu Nekolalde auzoa.



# ZENBAT BURU HAINBAT ABURU

## Munduko futbol txapelketa jarraitzen ari al zara? Futbolzalea zara ala kirol honi gehiegizko jarraipena eskaintzen zaiola uste al duzu?




**Jose Bastarrika**

Espainiaren partidak bakarrik ikusi ditut. Etxean La Sexta dugun arren, ez ditugu partida gehiago ikusten. Egia esan, ez naiz oso futbolzalea. Realaren partidak soilik ikusten ditut denboraldian zehar. Futbol gehiegi ematen dute telebistan.



**Iban Cabrejas**

Ni futbolzalea naiz. Etxean La Sexta jarri dugu eta partida asko ikusi ditut orain arte. Mundialari dagokionez, Argentinak irabaziko duela uste dut. Etxean ez dugu, futbola dela eta, arazorik. Izan ere, nire logelan telebista dut. Aita eta anaia ere futbolzaleak dira, baina ama ez.



**Mikel Moreno**

Ez zait futbola gustatzen. Txirrindularitza, ordea, bai. Tour-a noiz hasiko zain nago. Komunikabideetan apenas egiten diote kasu txirrindularitzari eta, egiten diotenean, doping-ari buruz hitz egiteko izaten da. Kirol honi egurra besterik ez diote ematen. Ez da bidezkoa.



**Josetxo Berasategi**

Realako bazkidea naiz eta kokoteraino nago. Mundiala? Ikusten dut, baina nahi baino gutxiago. Brasil, Argentina edo Alemaniak irabaziko dutela uste dut. Batzuen ustez, futbol partida gehiegi ematen dituzte, baina nire ustez ez. Dena den, partidak ere neurrian ikusi behar dira.

**MURUA**  
Oinetako konponketa

Laruzko erropen konponketa.  
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU  
Golden plazoletan



Secundino Esnaola, 16 B  
Tel: 943 72 16 63  
ZUMARRAGA



*Lanbira*

- Dietetika  
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 72 36 52



**BAPRI**  
ANIMALIADENDA

Txoriak, arrainak,  
katuak, dordokak...

Urdaneta, 3 ☎ 943 72 61 13  
ZUMARRAGA



Legazpi, 5

☎ 943 72 62 74  
ZUMARRAGA



**ZUEK BAI JAKINI!**

# Clara Lete: Tabernarien maistra



Jaiotzez azkoitiarra den arren, gutxi izango dira Clara Lete ezagutzen ez duten urretxuar eta zumarragarrik. Izan ere, dagoeneko 40 urte baino gehiago daramatza jendaurrean lanean, berak eta bere senar Juan Ramon Soraluze irekitako Aitube tabernan. Soraluze azkenaldian osasunez pattal samar dabil, baina Clarak senarra eta taberna gobernatzeko indarra du. Ez du negozioa alde batera uzteko gogorik eta pena handia hartuko du horretarako eguna heltzen zaionean.

2006ko ekaina



# ZUEK BAI JAKINI!

## Nongoak zarete zu eta senarra, Clara?

Azkoitiakoak gara. Ni Aizpurutxon jaio nintzen, Ule baserrian, eta bertako parrokiaren bataiatu ninduten. Senarra, berriz, mendian jaio zen: Aituben. Martitte aldean dago. Jaiotzez azkoitiarrak gara, baina gero hona aldatu ginen eta hemen daramagu bizitzaren zatirik handiena.

## Nola ezagutu zenuten elkar?

Gure baserria eta berea gertu zeuden eta umeak ginela ezagutu genuen elkar, 14-15 urterekin. Erromeritxoan, orduan besterik ez zegoen. Politik izaten ziren... Gaur, gazte jendea beste modu batera dago baina... Orduan, jai arratsaldean trikitilariak-eta etortzen ziren Aizpurutxora eta hantxe... Jende asko izaten zen: Azkoitia, Elosu, Zumarragako... denak joaten ziren hara. Gainera, agarratuan dantza egiteko aukera zegoen. Azkoitian ez zuten uzten, baina auzoko Antzuolako zatitxoan libre uzten ziguten. Ia denok Antzuola aldera joaten ziren genuen!

## Asko aldatu dira gauzak...

Dena aldatuta dago, baina oraingo gazteen bizimodua gustatzen zait. Jendea espabilatuta dago eta beharra ere badute. Guk dantza pixka bat egin, etxera eta kito! Berriro aste guztian zehar lana. Asteroko ilusioa igande arratsaldeko erromeria zen, iluntzean baten batek etxera lagunduko zigula eta... Oinez ibiltzen ginen gu, e! Hiru orduko bideak egiten genituen erromerietara joateko eta etxera itzultzeko. Orain herrietan egiten dira festak, baina garai hartan mendiz mendi izaten ziren: Elosu, Oleta, Gorla... Erromeria guztietara joaten ginen eta denetara oinez.

## Duela gutxi senarrak eta zuk urrezko ezteiak ospatu dituzue...

Ezkondu aurretik 9-10 urte eman genituen elkarrekin. Gaur egun ez dago pazientziarik. Denok ditugu akatsak eta ikasi egin behar da apur bat agoantatzen. Bestela ez dago gauza onik, e! Egun, bat laga orduko, beste bat aurkitu dute.

## Aizpurutxon bertan ezkondu al zineten?

Bai, eta bertan egin genuen 50. urteurreneko meza. Hantxe nahi zuten gizonak eta... Ezkondu ginenean Bartzelonara egin genuen eztei-bidaia. Trenez joan ginen,

baina hegazkinez itzuli. Senarrak hegazkina probatzeko kapritxoa zuen. Bilbora hartu genuen, baina lainoa sartu zen eta Gasteizen jaitsi ginen. Autobusean eraman gintuzten Bilbora eta handik taxia hartu eta Urkiolara joan ginen lotara. Han pasatu genuen azken gaua. Hurrengo egunean, etxera: Eitzako jaiak ziren orduantxe.

## Eztei-bidaiatik bueltan jarriko zineten elkarrekin bizitzen...

Noski! Orduko aginduak gogorak ziren! Ez dakit Jainkoa den ala ez den, baina guk errespetatu genuen... Gaur dena libre dago eta aprobetxatu dezatela.

## Non jarri zineten bizitzen?

Barrenkaleko 9an. Pako Herrero ferreteria zuen azpian. Bertan egon ginen etxe hau egin zuten arte: lau seme-alaba nituen hau hartzerako. Urretxun jarri ginen, senarrak Orbegozon lan egiten zuelako.

“Gu izan ginen eraikin honetako lokal bat erabiltzen lehenak, 39 urte dira joan dira”

Ezkondu aurretik, egunero bizikletan etortzen zen goizeko 6etarako. Goizeko 4etan irteten zen baseritik: Aizpurutxora oinez, bertan bizikleta hartu eta Zumarragara. Begira nola borrokatzen zen lehen! Beti goizez lan egin zuen, Mendiolanean bizartegia jarri baitzuen. Nire ahizpa Irigonen zegoenez, berandutzen zitzaionean-eta, bertara joaten zen lo egitera.



## Noiz ireki zenuten taberna?

Etxe hau egin zutenean. Gu izan ginen hemengo lokal bat erabiltzen lehenak, 39 urte joan dira. Lokala eta lehen solairuan etxebizitza erosi genituen, baina gero tarte-ko oina ere bai. Izan ere, banderillak ekartzeko oso gaizki ibiltzen nintzen.

## Nolatan erabaki zenuten irekitzea?


Gure gizonaren kapritxoa izan zen.

Heri Aldizkaria  
**Otamotz**  
aldizkarian publizitatea sartu nahi baduzu, deitu 943 03 64 74 telefonora.  
**Merkea eta ona!**

   
Edergintza tratamenduak  
Depilazioak  
Solarium  
Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13

  
ALTZARIAK  
**MERKA-UROLA**  
Mugitegi, 17 Tel. eta faxa 943 72 58 28  
URRETXU

centro óptico  
**JAVIER Arratibel**  
optika  
Ikusmenaren neurketa - Begietako tentsioaren neurketa - Graduatutako eta eguzkitarako betaurrekoak - Lentilak - Termometroak eta barometroak  
Soraluze, 10 ZUMARRAGA  
☎ 943 72 54 84

  
**SUTAN**  
Tximiniak, berogailuak, sukaldeak eta estaldurak  
☎ 943 72 06 38 - 665 73 73 02 Fax: 943 72 06 38  
Mugitegi poligonoa, B bidea, 6 bajua - URRETXU  
www.sutan.biz - sutan@sutan.biz



# ZUEK BAI JAKINI!

Duela urte batzuetako inauterietan, Aitube tabernako zerbitzariekin.



Hasi ginen eta zortea eduki genuen. Bezeroak oso ondo portatu ziren. Aldatu egin dira eta orain gutxiago ditugu, baina, Jainkoari esker, oraindik ere ondo moldatzen gara.

## **Taberna jartzea senarraren ideia izan zen, zuk ere gustuko al duzu?**

Gaztetan beti tabernaz taberna ibili nintzen lanean, e! Gure amak neguan beti bidaltzen ninduen. Aizpurutxoko tabernan, Dominikak Ezkurra parean izan zuen tabernan, Julian taberna pareko Barreiro ostatuan... aritutakoa naiz. Azken honetan, urtebete egin nuen. Gaurko neskek hala hartuko balituzte, astebete ere ez lirakeke egongo. Goizeko 2etan bukatzen genuen lana eta 5.30ean berriro lanera. Taberna 11.00etan ixten zen, baina goian jantokia zegoen eta hurrengo egunerako prestatu beharra zegoen. Sekulako hankako minarekin jaikitzen ginen, baina...

## **Zuen tabernan dezente hobeto moldatuko zinen, beraz.**

Ondo. Niri beti gustatu izan zait. Orain ere niregatik nago. Denak errietan

ari zaizkit. Alabak etortzen direnean, tuntu-naizela, ea zergatik jarraitzen dudana... esaten didate. Baina hau utziko banu, gaitxotu egingo nintzateke. Buruko mina badaukat ere, hona etorri eta, jendearekin solasean, ahaztu egiten zait. Gainera, bi neska dauzkat, bat goizetik eta bestea arratsaldetik.

**“Dagoeneko Frantziako moduan gaudela esaten dut: txikiteoa ere desagertzen ari da!”**

## **Dena den, garai batean zalaparta handiago izango zen...**

Beldurtzeko modukoa... egunero, goizeko 3etan, jendea tabernatik atera ezin ibiltzen ginen. Hori, taberna zabaldu ondorengo hamar urteetan izango zen.

Orain, gaueko 11etatik aurrera, ez nirean eta ez inon. Ostiraletan ere mugimendu txikia dago, zapatuetan, tira... Bezero asko gogorarazten dizkirate oraindik garai haiek. Gainera, ez zegoen horrenbeste taberna. Orain, urte gutxitan, asko ireki dituzte inguruan eta ez dago denontzat.

## **Garai batean jendeak dirua nonbaitetik ateratzen zuen...**

Jendeak lanean dirua ateratzen zuen, ordu asko sartzen baitzuten. Kanpotik jende asko etorri zen, lana zegoen... Orain zapatuetan adina jende ibiltzen zen orduan egunero! Dagoeneko Frantziako moduan gaudela esaten dut: txikiteoa ere desagertzen ari da! 20:00ak aldeira hasten da eta 21.30erako, kito! Gauean, 23.00etatik aurrera, inor ez dabil.

## **Zuek, gainera, beti goizetik gauera ireki duzue taberna.**

Orain ere, egunero 7.30ean irekitzen dut nik taberna. Gizonak lehenago irekitzen zuen: 6.30erako. Orain operatuta dago eta nik beranduago irekiko nuela esan nion. Izan ere, gauero-gauero nik ixten dut



# ZUEK BAI JAKIN!

tabernako atea. Hori egin gabe, ez naiz joaten ohera. Goizeko ordu bata iristen zaigu ordurako... Goizean, tarraka tarraka, beti egiten da zer edo zer. Askotan, besteek zabaltzerako, jornaltxoak ateratzen da. Baina, majo lan eginda e! Gurea, Politenako Juanitak utzi zionean hasi zen goizetan irekitzen. Hark beti zabaltzen zuen goizetan.

## Makina bat ordu sartzen dituzu...

Bazkalondoan atseden pixka bat hartzen dut, baina lorik ez dut egiten. Dena den, hankak luzatzeak mesede egiten dit. Pertsona jarri egiten da...

## Oporrak hartuko dituzue, behintzat.

Lehenengo urteetan ez genituen hartu. Orain azaroan joaten gara: terraza urria bukaera arte izaten dugu zabalik eta gero oportetara joaten gara. Gizona pixka bat ari da mugitzen... ea ordurako bizkortzen zaidan eta joaterik dugun. Kanariar Irlak oso gustukoak ditut. Gizonak Kubara joateko kapritxoak zuen eta joan ginen, baina ez naiz gehiago joango, ezta hegazkin txartela doan ematen badidate ere! 50 gradu! Bero txarra egiten zuen... Kanariar Irlan 25 gradu inguru egiten du beti eta haize ederra. Handik, dena sendatuta etortzen naiz.



Clara, arratsaldetan berarekin lan egiten duen Veronicarekin.

## Urte hauetan guztietan zuen taberna ingurua nola aldatu den ere ikusi duzue.

Beno... Lehen atzeko kale honetan ez zegoen ezer eta orain Urretxuko kale nagusia da. Ez pentsa bertan autoa aparkatzeko hutsunerik topatuko duzunik! Festak urtero antolatzen dira, baina lehen askoz ere hobekak ziren. 1.000 pezeta eskatzen zizkiguten tabernarioi eta dendariei,

Larrañagak-eta. Dantzaldia antolatzen zuten eta dantza egin nahi zuten mutilei kobratu egiten zieten. Urte batean edo bestean ez ziren festarik izan, baina berriro antolatzeari ekin zitzaion. Garai batean San Antonioren irudia Tiffany's-en eraikineko teilatu izkinan izan zen. Orain, berriz, Prontxio Aranbururen harategia zen gainean dago.

[www.megadenda.com](http://www.megadenda.com)

**ramos**  
Bergara, 6  
20005 Donostia  
Tel.: 943 42 63 50

**bilintx**  
Fermin Calbeton, 21  
20003 Donostia  
Tel.: 943 42 00 80  
(Jai egunetan zabalik)

Paseo Colon, 8  
20302 Irun  
Tel.: 943 63 17 26

Arostegieta z/g  
20400 Tolosa  
Tel.: 943 67 35 33

Ibargarai, 12  
20570 Bergara  
Tel.: 943 76 40 50

**Megadenda**  
zure aukera musika eta liburutan

2006ko ekaina





Arantxa Iraeta

## Guateketeketeteke!

Gaurko gazteek ez dute errespeturik, lotsa-gabeak dira, ondo pasatzea besterik ez dute buruan... Uf !!! Aspertuta nago karrozen horrelako jardun astunak entzuten.

Niri, berriz, karroza izanik, gure bizi-poza direla iruditzen zait, zoragarriak, zenbait helduk baino hobeto dakite zer den errespetua, atseginak dira, edukazio onekoak, ondo pasatzeko ahaleginak egiten dituzte (eta nork ez, niri amak ere beti esaten dit kristoren zukua ateratzen ari natzaiola bizitza honi), ikasi, lana egiten dute eta, horrez gain, gure bi herriotan ekintza ugari antolatu ere bai: hitzaldiak, zine emanaldiak, haurrentzako jokoak, ikastaroak, ekintza nahiz errebindikazio sozialak, kontzertuak, aldizkaria (Kkin'tzona), Urola ibaiaren garbiketa (ikusitako zenuteneke esango didazue nortzuk ari zirenen garbitzen) eta, nola ez! aurten bigarrenengoz, GUATEKEA!

Bai, jaun-andreok, Gaztelekun, Ekainaren 3an, larunbata, karrozei eta bereziki gurasoei eskainitako ekintza zoragarria. Osagai guztiak zituen: dekorazioa, bueltaka dabilen koloredun bola, disk-jockeyak, bini-lozko diskoak, zurrakapotea, musika-eskaintza aparta eta dantza egiteko aukera paregabea. Ez ginen karroza asko azaldu baina... zein ondo pasatu genuen! jo ta ke dantzan! gelditu gabe! Han ibili ginen denok nahastuta: zahar (ejem! heldu) eta gazte. Ez al da hau luxua eta ohorea guretzat? Mimatua sentitu gara, zenbat lan egin


duten hau prestatzen, musika zoragarria aukeratzen, xehetasun guztiak zaintzen!

Pena izan da jende gehiago ez azaltzea baina tira! Datorren urtean antolatuko duzue berriro, ala? Ea propaganda pixka bat eginda jendea animatzen den... Eta urtean behin egin beharrean, beste aukera bat ematea gehiegi eskatzea izango litzateke? Badakigu lan handia dela baina prest gaude laguntzeko, bai horixe! Gainera, badauka bere grazia, ezta? gazteak gurasoak zaintzen: *begira, begira, nola egiten duen dantza X-en amak! ez al dira nekatuko! bada ordua etxera joateko, e?* eta abar luzea.

Beste proposamen bat ere egingo nizueke: dantza-soltean egin beharrean denbora guztian musika lasaia ere tarteka jarri eta dantza eskatzea, ba dakizue, garai batean bezala, baina era modernoan, hau da, neskak ere eskean ibiltzea, eta kalabazak eman ezker, jope! Beste batengana eta zortea baldin badago, galdera: estudias o trabajas? je, je, je! eta gero goxo-goxo dantza egin, ahal bada binaka eta bestela hiru-naka, taldeka... eta ondo helduta, noski... ekintza hori berreskuratzea zoragarria izango litzateke.

Benoa, bukatzeko, ZORIONAK eman nahi dizkizuegu Maria Luisa, Marian, Mailo... eta kanpotik etorritako Maite, Jose... Eta han izan ginen guztion partetik: GAZTEAK MUNDIALAK ZARETE!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!





## Aitor Alberdi: euskal triatloiaren gailurrean

Badira urte batzuk Aitor Alberdi bere lagun Jon Azpiazurekin Otamotz aldizkarian atera genuela, duatloia egiten zuela eta. Ordutik, gauza asko aldatu dira: dagoeneko Heziketa Fisikoko goi ikasketak bukatzeaz dago, triatloia ere egiten du eta ekaina hasieran, lehen aldiz, Euskal zirkuituko proba bat irabazi zuen. Hector Llanos handiak parte hartzen zuela kontuan izanda, ez da lorpen makala.

### **Triatloia egiteko benetako kirolzaletasuna behar da, nondik datorkizu halako grina?**

Aita bizikletan ibiltzen zen lehen, zikloturista gisa. 12 urterekin bizikleta muntatu zidan eta berarekin ateratzen hasi nintzen. Futbolearen ere jokatzen nuen, baina, Urolan jarraitu beharrean, bizikletan serio hastea erabaki nuen. 18 urte arte bizikletan ibili nintzen, gero duatloietan hasi nintzen eta beranduago triatloietan ere bai.

### **Zergatik erabaki zenuen txirrindularitza duatloiarengatik aldatzea?**

Jubeniletan aritu nintzen eta, afizionatu mailara salto emateko garaia heldu zenean, Gasteiza joan nintzen ikastera. Alde batetik txirrindularitzan jarraitzeko asko entrenatu eta poztasun gutxi izango nituela ikusi nuenez, eta kirola egiten jarraitzeko gogoia nuenez, duatloiak egitera animatu ninduten. Duela sei urte izan zen hori.

### **Zer moduz moldatu zinen?**

Denboraldi bat osatu nuen eta gustura ibili nintzen.



# IZERDI PATSETAN



Kirol horretan hasten garen guztioi triatloiak politagoak direla esaten digute eta, halako batean, animatu egin nintzen. Orain biak egiten ditut.

## **Betidanik bizikletan ibili ondoren, ondo moldatu al zinen korrika?**

Hasieran kosta egiten da, mugi-mendu ezberdinak baitira. Hankako mina ohikoa da. Dena den, beti gustatu izan zait. Neguan mendian korrika egitea entrenamendu gisa ondo dago. Gustura emandako pausoa izan zen, denbora gutxiago eskatzen baitu.

## **Igeriketan ere ondo moldatuko zara...**

Hori ere guztiz ezberdina da. Karrerako bigarren urtean igeriketa ikasgaia genuen eta orduan hasi nintzen. Teknika ikasten hasi ginen, baina, egia esan, aurreneko urtean oso gaizki moldatu nintzen. Poliki-poliki, metroak eta metroak egiten eta teknika lantzen, hobeto moldatzen naiz. Bizikletan hobekien moldatzen direnak baino apur bat lehenago bukatzen dut igeriketa frogara. Batezbestekotik gora nago. Estatu mailan, txirrindulari onenak hemen daude.

## **Jende asko al dago, bada, txirrindularizatik triatloira pasatu dena?**

Askok. Gainera, korrika mundutik pasatu direnak ere, oso ondo moldatzen dira bizikletan. Madril, Katalunia eta

## **“Bizikletan eskarmentu handiagoa dut eta nire indarrak hobeto aprobeztatzen dakit”**

Galiziako triatloilariak, ordea, txikitatik horretan arituak dira edota igeriketa mundutik pasatu dira. Hala, hemengo probak eta kanpokoak oso ezberdinak dira. Hangoetan, txirrindularitza proban ez da aldaparik izaten. Hemen, ordea, beti izaten da maldaren bat. Espainiako karreretan bizikletak ez du garrantzirik eta hemengotetan bai.

## **Zer moduz moldatu zara orain arte?**

Poliki-poliki, urtetik urtera hobera egin dut. Junior mailan urte bakarra eman nuen. Iaz, berriz, 23 urte azpiko azken urtea nuen. Euskal Herriko zirkuitua irabazi nuen, bai duatloian eta bai triatloian. Nire mailakoen artean erraz samar nagusitzen nintzen eta helburua sailkapen orokorrean lehenengo bosten artean egitea nuen. 23 urte mailakoen artean onena izan nintzen proba guztietan.

## **Zer moduz senior mailan?**

Maiatzean hasi nintzen, lesioa

izan bainuen. Eibarko duatloian eta Gorniz, Ondarroa eta Arrasateko triatloietan parte hartu dut orain arte. Gornizen laugarren egin nuen, Ondarroan hirugarren eta Arrasaten irabaztea lortu nuen. Euskadiko zirkuituan bigarren edo hirugarren postuan nagoela uste dut. Oso gustura nago. Garaipena lortzea beti zaila da, normalean irabazlea Hector Llanos izaten baita. Profesionala da eta berari ezer gertatzen ez bazaio, gainontzekoontzat oso zaila da irabaztea.

## **Nolatan irabazi zenuen, bada, Arrasateko lehiaketa?**

Hectorrek lasterketa guztia aurretik eman zuen eta atzetik 10eko taldea osatu genuen bizikleta proban. Azken mendatean ihes egin nuen eta taldearen eta Llanosen artean gelditu nintzen. Lasterkako bosgarren kilometroan-edo proba utzi zuen tripako minak jota. Atzetik Gorka Mujika laguna heldu zen, baina berak dagoeneko lasterketaren bat irabazi du eta lehenengo sartzen utzi zidan.

## **Txirrindularizatik heldu izanda, bizikletan moldatuko zara hobekien.**

Hiru kiroletan antzera moldatzen naiz. Dena den, bizikletan eskarmentu handiagoa dut eta nire indarrak hobeto aprobeztatzen dakit. Hemen inguruko ibilbide guztiak ezagutzen ditut, lasterketa irakurtzen dakit...



# IZERDI PATSETAN

## Denboraldia asko luzatzen al da?

Duatloi probak martxotik maiatza erdira arte izaten dira. Euskal Herriko triatloi zirkuituak, berriz, zortzi bat proba ditu: maiatza erdialdetik uztaila bukaera arte-edo. Gero, abuztuan eta irailean, Nafarroara joaten gara, hango probetan parte hartzera. Bestalde, irailean distantzia luzeagoko triatloiren bat egiten dugu: Donibane Lohitzuneko eta Guadalajarakoa, pare bat aipatzearen.

## Espainiako txapelketan ez al duzu parte hartzen?

Horretarako, sailkapen probetako bat egin behar da. Aipatu bezala, Espainiako

“Epe luzera,  
triatloilaria izanda,  
Iron Man bat egiteko  
ilusioa dut. Hawaikoa  
bada, hobe, noski”

probetan igerian oso ondo egin behar da eta bizikleta trantsizio hutsa da. Hori dela eta, hemengooi ez zaigu erakargarria iruditzen. Bidaia luzea egin behar da eta, ondoren, ez dugu lasterketaz gozaterik. Llanos anaiek parte hartzen dute, baina horiek beste maila batean daude.

## Zein da aurtengo zure helburua?

Karrera bat irabazi ondoren, helburua bete dudala esan dezaket. Baina, behin hona helduta, zirkuituko hiru lehenen artean sailkatzen eta beste probaren bat irabazten saiatuko naiz.

## Eta datorren denboraldirako?

Ez dut helburu zehatzik, entrenatzeko zenbat denbora izango dudana ikusi behar. Epe luzera, triatloilaria izanda, Iron Man bat egiteko ilusioa dut. Hawaikoa bada, hobe, noski.

## Orain, zein distantzian aritzen zara?

Hemen sprint eta proba olinpikoak izaten dira. Sprint izenekoetan 750 metro egin behar dira igeri, 20 kilometro bizikle-

tan eta beste 5 korrikan. Olinpiar izenekoan, lan bikoitza egin behar da: 1.500 metro igeri, 40 kilometro bizikletan eta 10 korrikan. Bitan egin ditut triatloi luzeagoak. Lehen aldian oso gaizki ibili nintzen, prestakuntza aldetik motz iritsi bainintzen. Iaz, hobeto atera zitzaidan.

## Distantzia luzean ala motzean moldatzen al zara hobeto?

Luzean hobeto, bizikleta probak igerian galdutako denbora berreskuratzeko aukera handiagoa ematen baitu.

## Prestatzaileraren batekin al zabilta?

Ez, nik neuk jartzen dizkiot entrenamenduak neure buruari. Izan ere, Heziketa Fisikoa ikasten aritzeaz gain, entrenamenduei buruzko masterra egiten ari naiz Madrilen eta triatloiko entrenatzaile titulua ateratzen ari naiz. Ikasgai bakarra falta zait karrera bukatzeko. Dena den, esaten den bezala, "errementariaren etxean, zotza buruntzi...". Askotan, denboraren eta eguraldiaren arabera, ahal dudana entrenatzen dut.

## Kirol munduan lan egiteko asmoa duzu, beraz.

Entrenamendu munduan sartzeak ematen dit ilusioa. Iraupen kirolak eta pilota atsegin ditut gehien. Ez naiz pilotan aritua, baina igeriketa eta pilota espezialitateak aukeratu ditut. Pilota munduan tradizioak indar handia du eta oso zaila da berrikuntzak sartzea. Horrek badu bere alde ona: lan handia dago egiteko antolakuntza eta prestakuntza aldetik.

## Aita ere kirolzalea dela esan duzu, etxean gustura izango dituzu...

Aita gutxiago dabil dagoeneko bizikletan eta ez naiz berarekin ateratzen. Anaiarekin bai, berak ere duatloi eta triatloiak egiten baititu. Hura ere bizikletan ibili zen jubenil maila bitartean. Gero, nik egiten dudana egitera animatu nuen. Donostian ingeniari itza ikasten hasi da, baina entrenatzeko tartetxoren bat ateratzen du. Ez dugu elkarrekin askotan entrenatzen, gutxiago gustatzen baitzaio. Nik gehiago eskatzen diot neure buruari. Dena den, lehiaketetara elkarrekin joatea gauza handia da. Aita ere gurekin etortzen da, lehiaketetako giroa asko atsegin baitu.



**HARATEGIA URDAITEGIA**  
☎ 943 72 00 61  
Leturiatarren enparantza, 2  
ZUMARRAGA



**Keros** Enmarkatzeak  
Arte ederrak  
Dekorazioa  
Opariak  
Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 60

**PLAZAOLA**  
**ITURGINTZA**  
Bide-Zar 5 ZUMARRAGA  
943 72 13 70



**arropa informala**  
Barrenkale  
Urretxu  
943 72 40 57



**ELEKTRATRESNAK**  
☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 52 91  
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA





## Aitor Esnal

Esnalek Ikastolan eta Lizeoan egin zituen Oinarrizko Hezkuntza eta Batxilergoa. Ondoren, Donostiara joan zen kimika ikastera. Ikasketak bukatu ondoren, bost urte eman zituen Unibertsitateko kimika organiko sailean lanean, beka batekin. "Oso urte onak izan ziren eta harreman sendoak egin nituen", dio. 1999an, berriz, Irnasa enpresan hasi zen lanean. Orain, Premank-en eta kimika fakultatean irakasle dihardu.

Aitor Esnal, futbola dela eta da ezaguna herrian: Urolako talde guztietan eta 2.B mailako Beasain eta Barakaldo taldeetan jokatu zuen. Duela aste gutxi, Espainiako Futbol-7 txapelketa eskuratu du Decoraciones Nuñez taldearekin. Talde horretan Urolako bete-

ranoek jokatzen dute. "Futbol-7ak jokatzen jarraitzeko aukera bikaina eskaintzen digu garai bateko jokalariorik. Gainera, taldean sekulako giroa dugu".

Herriaren alde makina bat lan egindakoa ere bada, ez futbol arloan bakarrik. Hala, musika bandako eta txistulari taldeko kidea izan zen eta Kultura, Kirol eta Festa batzorde burua ere bai. Ez du uste berriro zinegotzi izateko aurkeztuko denik, baina festa batzordean laguntzen jarraitzen du.

### **-Zer izan nahi zenuen umetan?**

Realeko futbolaria. Horretarako, lehenbailehen handia izan nahi nuen.

### **-Aisialdian zer egitea atsegin duzu?**

Daukadan denbora libre apurrean, kirola egitea eta lasai egotea gustatzen zait.

### **-Bizitzeko toki bat?**

Zumarraga, zalantzarik gabe.

### **-Gustuko futbol jokalaria?**

Umetan Zamora-eta. Orain, Pele. Pertsona bikaina iruditzen zait. Maradonaren aurkakoa naiz eta askotan tokatzen zait eztabaidatzea.

### **-Urola ikusi duzun jokalaririk onena?**

Ramon. 41 urte ditu eta oraindik ere izugarria da.

### **-Gustuko entrenatzailea?**

Alfonso Del Barrio. Barakaldon entrenatzaile izan nuen eta futbolaz ez nekizkien hainbat eta hainbat gauza irakatsi zizkidan.

### **-Nork irabaziko du mundiala?**

Brasilek.

### **-Zenbat baloi oparitu dizkiozu dagoeneko Iker seme jaio berriari?**

Alabari bai, baina semeari ez diot oraindik baloirik erosi. Aneri baloia botatzen diot, baina ez dio kasurik egiten.

### **-Santaixabeletan girorik ez dela diote batzuek...**

Nire ustez, santaixabelek ez diete inongo inbidiarik santaixabelei.

### **-Festetako ekitaldi kuttuna?**

Zezen suzkoa. laz, gerta daitekeen okerre gertatu zen eta ez zen oso larria izan. Hala ere, kendu egin dute...

### **-Ilehortiak ala beltzaranak?**

Umetatik, ilehortiak. Dena den, emakume guztiek dute

bere edertasuna.

### **-Egindako azken oparia?**

Umeari erositako azken gauzak.

### **-Eta jasotakoa?**

Aitak erositako futbolerako botak.

### **-Data bat?**

Maiatzaren 5a. Egun horretan ezagutu genuen elkar Idoiak eta biok eta data berean ezkondu ginen, hamar urte beranduago.

### **-Neska eta mutil izen bana?**

Ane, Iker eta Izaro.

### **-Zein egunkari irakurtzen duzu?**

Herriko kronikak irakurtzen ditut: Hitzan, DVn eta Noticias de Gipuzkoan.

### **-Gustuko telebista saioa?**

Kirolak eta dokumentalak.

### **-Bereziki gorroto duzuna?**

Maria Teresa Camposen politika tertuliak.

### **-Liburu bat?**

'Kutsidazu bidea, Ixabel' da irakurri nuen azkena. Ez dut irakurtzeko ohiturarik.

### **-Filme bat?**

'La vida es bella'.

### **-Soinu bat?**

Oboearena.

### **-Usain bat?**

Umearen kolonia.

### **-Janari bat?**

Denak. Pistoia eta gibela bereziki.

### **-Ura ala...**

Zumoa.



# Zumarragako tabernak

Hemen da Santaixabeletako giroa!

Argazkia: Gotzon Aranburu.



**ALASKA**  
taberna

*kaketa*  
*kafe* —

**HUTS**  
TABERNA



**ARKUPE**  
TABERNA

**HIRUKIA**  
TABERNA

**ARRUABARRENA**  
KAFETEGIA  
GOZOTEGIA

TABERNA  
*Hurreta*  
JATETXEA

**ALEXANDER**  
KAFETEGIA

**4 vientos**  
KAFETEGIA



**TINO**  
kafetegia

**KABIA**  
JATETXEA



# Santaixabelak 2006

*Urretxuko giroa!!*



# Urretxuko 12 Tabernari

*The Intrepid Fox • Laket • Motz • Goiko Kale  
Ekaitza • Ezkurra • Florida • Navarro  
Avenida • Buhame  
HD • Soraluze*

# Ondo pasa jaietan!